



Deialdi hau argitaratzen dugu Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren babesean, zeina deialdiaren oinarri arautzailea baita. Ordenantza hori 2024ko maiatzaren 30eko osoko bilkuran onetsi, eta 2024ko abuztuaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

BALORAZIO-BATZORDEAREN OSAERA: Enpleguko, Ekonomia Sustapeneko, Merkataritzako, Berdintasun eta Bizikidetzaz Aniztasuneko, eta Immigrazioko Informazio Batzordea

DIRULAGUNTZA-LERROA	ETORKINEKIKO TRATU-BERDINTASUNA, JATORRIAGATIKO DISKRIMINAZIORIK EZA, KULTURARTEKO BIZIKIDETZA ETA GIZARTERATZEA
DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUA	TRATU-BERDINTASUNA ETA JATORRIAGATIKO DISKRIMINAZIORIK EZA LORTZEKO HELBURUA DUTEN ELKARTEEN JARDUERAK; ETA DIBERTSITATEA SUSTATZEKO SORTU, ETA XEDE HORI ORGANIKOKI ISLATZEN DUTEN ELKARTEEN JARDUERAK
Aurrekontu-partida	052 2319 48182
Partidaren deskribapena	TA etorkinen elkarteei: IMMIGRAZIOA
Zenbatekoa:	12.000,00 €
Dirulaguntza emateko prozedura	NORGEHIAGOKA

Basaurin gizarte-kohesioa sustatzea. Horretarako, nazionalitate-, etnia- edo kultura-minorien kide diren herritarrek sortutako aniztasuna ikusgarri egitea eta aniztasun hori aintzatestea.

Herriko elkarteei. Hain zuzen ere, estatutuetan dirulaguntza-lerro honen xedea gauzatzea aurreikusita dutenei. Dena delako elkarteak Basauriko Elkarteen Udal Erregistroan izena emanda egon beharko du oinarri hauek BAOn argitaratu aurretik.

Erakundeek baterako proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte, elkarteen talde edo partzuergo gisa, eta horietako bat taldeko edo partzuergoko buru gisa agertu beharko da, eta hark aurkeztuko du eskabidea eta, hala dagokionean, justifikazioa ere bai.

Elkarteen Udal Erregistroan izena emanda egon, baina dirulaguntza-lerro honen xedea gauzatzea beren estatutuetan jasota ez duten elkarteek ere parte hartu ahal izango dute lerro honi dagozkion jarduerak burutzen, baldintza hori betetzen duten elkarteekin lankidetzan. Horretarako, elkarteen partzuergoa eratu beharko dute, eta ezin izango dute sekula partzuergoko buru gisa aritu.

Erakundeen partzuergo gisa aurkeztuz gero, Eranskin honen laugarren puntuan adierazitako dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko da.



- Egiaztagiri horien bien ordeztu Udalaren ereduaren arabera erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da, baldin eta emango den dirulaguntza 3.000 €-tik beherakoa bada.
- Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak egunean izan beharko ditu eskaera aurkeztu den unean, eta bere horretan mantendu beharko dira emakida, betebeharraren aitorpena eta ordainketa egiten diren unean.
- Sexu-izaerako deliturik ez izatea jasotzen duen erantzukizunpeko aitorpena.
- Erantzukizunpeko aitorpena: adingabe bat babesgabezia egoeran egon daitekeelako susmoa Udal Gizarte Zerbitzuei jakinarazteko konpromisoa.
- Udalaren dirulaguntzaren edo beste ordainketaren bat inoiz jaso ez duten, eta, hortaz, Hirugarrenen Erregistroan izen eman gabe dauden pertsonen edo erakundeek emango zaien "Hirugarrenen fitxa" aurkeztu beharko dute.

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:

Hilabeteko epea egongo da, deialdi hau BAOn argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera.

Deialdiaren testu osoa argitaratuko da Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian.

Deialdiari buruzko informazio osoa eskuragarri egongo da Udalaren webgunean (www.basauri.eus), eta handik deskargatu ahalko dira dagozkion ereduak.

Eskabideak Basauriko Udalaren Egoitza Elektronikoa aurkeztuko dira, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak aurreikusitako edozein tokitan ere.

6. BALORAZIO-IRIZPIDEAK:

Zenbateko osoa erakunde eskatzaileen artean hainbanatuta, formula honi jarraiki: $(D/T) \times P$. Hona hemen ikurren azalpena:

- D: aurrekontu-partidaren zenbateko erabilgarria.
- T: erakunde eskatzaile guztiek lortutako puntuen batura osoa.
- P: erakunde onuradunak lortutako puntu kopurua.

Hauexek izango dira dirulaguntzak emateko irizpideak:

IRIZPIDEA	PUNTUAK, GEHIENEZ:
	100
1. PROPOSAMENAREN EDUKIA	65
1.1 Proposamenaren kalitatea: - HELBURUAK: 10 - KOHERENTZIA: 10 - JARDUERAK ETA METODOLOGIA: 15 - EBALUAZIOA: 10	45
1.2 Proposamenaren elementu berritzaileak (helburuari dagokionez; metodologian; kudeaketan; jasotzaileei dagokienez; zabalkundearen eremuan; parte-hartzeari begira; beste hizkuntza batzuk txertatuta kultura-aniztasuna adierazteko; beste elkarte batzuen inplikazioa lortuta, etab.)	10

1.3 Euskara eta gaztelaniaren koofizialtasuna - Zabalkundea ele bietan egiten da: 0-3 - Gainera, proposamena ele bietan gauzatzen da, eta euskara zein euskal kultura ezagutzeko ekintzak aurreikusten ditu: 0-2	5
1.4 Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna murrizteko eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko ekintzak jasotzen dituzten proposamenak: emakumeek eta gizonak hainbat testuingurutan bizi duten egoera desberdinaz jabetzen laguntzen duten jarduerak dira, eta emakumeen autonomia, ahalduntzea, sareak sortzea eta parte-hartzea bultzatzen dute.	5
2. PROGRAMA NORI ZUZENTZEN ZAION	10
Herritarren edo aurreikusitako balizko hartzaileen parte-hartzea sustatzea	4
Aurreikusitako parte-hartzaile kopurua, jardueraren arabera	3
Parte-hartzaile basauriarrak (%)	3
3. ERAKUNDE ESKATZAILE(AR)EN EZAUGARRIAK	25
Erakundeak/ek azken bi urteetan izandako parte-hartzea udalerriko erakunde-sareetan eta programa sozial eta kulturaletan	7
Partzuergoak aurkeztutako proposamen partekatua	8
Migrazioaren eta aniztasunaren sustapen eremutik kanpoko elkarteekin partzuergoan aurkeztutako proposamen partekatua	10

Eskabideek 25 puntu lortu beharko dituzte, gutxienez, «proposamenaren edukia» atalean.

7. PROGRAMA BAKOITZERAKO GEHIENEZKO ETA GUTXIENKO ZENBATEKOA:

Diruz lagundu ahal izango da jarduketa-programaren aurrekontu osoaren % 80, gehienez, 3.000,00 €-ko mugarekin.

Programak, bestalde, kofinantzatu egin beharko dira, hau da, % 20, gutxienez, beste baliabide batzuekin finantziatuko beharko da (izan daitezke erakunde eskatzailearen beraren baliabideak, edo bestelako finantziazio-iturri publiko zein pribatutatik datozenak). Boluntarioek egindako lana ere kofinantziazio gisa zenbatu ahal izango da, baldin eta kofinantziazioaren zenbateko osoaren erdia (% 50) gainditzen ez badu. Lan hori, betiere, Bizkaiko Gizarte Esku-hartze Hitzarmenean laguntzaileentzat aurreikusitakoaren arabera balioztatuko da, eta agiri bidez egiaztatu beharko da (norbanakoak, egindako lanak eta lan horiei eskainitako denbora).

Proiektua partzuergo batek aurkezten badu, eta, gutxienez, erakunde bik hartzen badute parte proiektuaren kudeaketa eta garapen integralean, aipatutako gehienezko muga handitu egin ahalko da.

Ez dago gutxieneko kopururik, dirulaguntza jasotzekari dagokionez.

8. DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA:



1. Dirulaguntzarako aurkeztutako proiektu edo egitarauaren % 100 justifikatu beharko da, ez bakarrik Udalak emandako zenbatekoa. Hala eta guztiz, aurkeztutako aurrekontuaren % 80 baino gutxiago ematen bada, justifikatu beharreko kopurua portzentaje berean txikiagotuko da.
2. Diruz lagundutako programari egotzi ahal zaizkien zeharkako gastuen portzentajeak, berriz, ezingo du gainditu emandako dirulaguntzaren % 10, edo, hala badagokio, aurreko parrafoan aurreikusitako txikitetik ondorioztatutakoa.
3. Justifikazio-kontu sinplifikatuak honako dokumentu hauek jasoko ditu, gutxienez:
 - a) Egindako proiektuaren azalpen-memoria, «Justifikazio memoria memoria justificativa» izeneko dokumentuaren ereduaren arabera egindakoa, non jasoko baita zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren.
 - b) Jardueren kostuari buruzko justifikazio-memoria ekonomikoa:
 - Diruz lagundutako jarduerari lotuta egindako gastuen zerrenda, «Facturen zerrenda listado facturas» izeneko Exceleko dokumentua Beteta egin beharko dena. Horri, gainera, dagozkion dokumentuen kopia erantsi beharko zaio.
 - Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera guztien zerrenda, diru-sarrera publiko eta pribatu guztiak zehaztuta, diruz lagundutako jarduerak egiteko bazkideek egindako kuota-ekarpenak barne. Era berean, honako hauek adierazi beharko dira: zenbatekoa, diru-sarrera zein entitatetatik datorren, administrazio publikoen dirulaguntza den, ente pribatua ala publikoa den, eta ea beste diru-sarrerarik dagoen; eta dagozkion dokumentuak erantsi beharko dira.
 - Erantzukizunpeko adierazpena, honako hauek jasoko dituenak:
 - o Aurkeztutako fakturak eta justifikazio-agiriak Basauriko Udalak diruz lagundutako jarduera edo programak aurrera eramateko beharrezko gastuei dagozkiela.
 - o Dirulaguntza justifikatzeko egiaztagiri digitalizatuen kasuan, digitalizazioak jatorrizko dokumentuenak direla, eta ez dela inolako aldaketarik egin.
4. Emandako dirulaguntzak justifikatzeko epea amaituko da horiek eman diren ekitaldiaren hurrengoaren urtarilaren 31n.
5. Diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, ezinbestekoak direnak eta diruz lagundutako programak gauzatzeko epearen barruan egiten direnak.
6. Justifikaziorik eza edo aski ez den justifikazioa: Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 29. artikuluan jasotako betebeharrak ez betetzeak, edo aski ez den justifikazioa egiteak, berekin ekarriko du ordenantza horretan ezarritako baldintzak itzultzea.

Era berean, Udalari jasotakoa gehi berandutze-interesak itzuli beharko zaizkio, Basauriko Udalaren Diru Laguntzen Ordenantza Orokorraren 37. artikulua arabera.

9. ONURADUNEN OBLIGAZIOAK:

Udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 12. artikuluan ezarritakoak. Bereziki, dirulaguntza eman duen organoaren aurrean egiaztatzea jarduera egin dela eta dirulaguntzaz gozatzeko ezarritako helburua bete dela.

10. HIRUGARRENAK AZPIKONTRATATZEA:

Udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 27. artikuluan ezarritako baldintzetan egingo da.

11. DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA, ERAKUNDE ONURADUNAREN ESKUTIK.

Dirulaguntza jasotzen duen erakunde orok publiko egin beharko du Udalak emandako finantzaketa, eta Udalaren logotipoa erakutsi beharko du inprimatzen dituen materialetan (kartelak, liburuxkak, informazio orriak...), oroimen plaketan, komunikabide elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan edo komunikabide idatzietan argitaratu ditzakeen iragarkietan.

Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 14. artikuluan xedatutakoaz gain, pertsona eta erakunde onuradunek ezin dute hizkera eta irudi sexistarik erabili argitalpenetan, batez ere publizitate - eta komunikazio-euskarrietan. Berdintasunaren, aniztasunaren eta rol aniztasunaren balioak dituen hizkuntza eta irudia sustatu behar dute. Helburu horrekin Berdintasun Atalak eskura jar ditzake gomendioak.

12. BESTE DIRULAGUNTZEKIN BATERAGARRIA IZATEA.

Basauriko Udalak eman ditzakeen dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuaren dirulaguntzekin, oinarri zehatzetan kontrakoa ezartzen ez bada. Edonola ere, dirulaguntzen eta beste iturriengatik lortutako finantzaketak ezingo du diruz lagundutako programaren kostua gainditu.

13. DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA

Oro har, dirulaguntzak aurretik ordainduko dira, emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa justifikatu baino lehen, eta inolako berme motarik eskatu gabe, dirulaguntzari atxikitako jarduerak aurrera eramateko beharrezko finantziarioa gisa.

Emandako dirulaguntza banku transferentzien bidez ordainduko da, Udal honetako Hirugarrenen Erregistroan jasota dagoen pertsona edo erakundearen kontu korrontean.

Dirulaguntza ez da ordainduko, baldin eta pertsona edo erakunde onuradunak beste dirulaguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu eta justifikatzeko epe hori amaituta badago. Halaber, dirulaguntza ez da ordainduko, pertsona edo erakunde batek aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.

14. EBAZPENERAKO ETA JAKINARAZPENERAKO EPEA.



Eskaerak ebazteko eta erakunde eskatzaileei jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen denetik, eta eman diren nahiz atzera bota diren dirulaguntzak jakinaraziko dira.

15. JARDUERAK GAUZATZEKO EPEA.

Jarduerak edo programak egiteko epea amaituko da dirulaguntza ematen den ekitaldiaren abenduaren 31n.